

GERNIKA GARRETAN 2023



**KALE ANTZERKIA
Apirilak 26, 21:00etan
FORU PLAZAN**

GERNIKA BONBARDATU ZUTEN

86. URTEURRENA

Bizitza da handiena, galtzea dena galtzea litzake.
(Bertolt Brecht)

Gernika Garretan elkartearen adiskideok agur: sei urte joan dira herri antzerkiaren azken emanaldia burutu genuenetik hona, baina bizi gara eta berriro gatoz.

Dakizuen moduan; Gernika Garretan elkarateak Apirilaren 26an bonbardaketaren urte hurrenaren gomutan, Herri Antzerkia antolatzen duen erakundea gara. Bi urterik behin egin izan dugu emanaldia, dagoeneko hiru burutu ditugularik.

Laugarren lana “GERNIKAK” izen burupean aurkeztu genuen, baina 2020 udaberrian estreinaldirako hilabete falta zela bertan behera uztera behartu gintuzten. Lan honek, gaur egun, munduan gehienon kalterako eragiten diren konfliktoak islatzen ditu.

Ordutik ona hiru urte joan dira, bidean Gernikarekin batera, gizateriaren adimenak historian jasan duen bonbardaketa mediatikorik ankerrena bizi izan dugu eta bukatutzat jotzen genuen unean “Jauntxo digitalen” eskuek geure etxeko atarian piztu dute gerra “Ukranian” zentzua berreskuratu ezean Europa osoa hartu lezaken liskar armatua.

Horregatik 1937ko apirilaren 26an, izugarrikeria anker hura sufritu zutenen laugarren belaunaldiko birloben aroan, munduak bizi duenari adituz “GERNIKAK” deritzon herri antzerkiak, 2020an sortuak eta noiz edo noiz burutu gura genukeen lan honek duela hiru urte baino esanahi sakonagoa duela uste dugu.

Baina gurari hau lortzeko geuk gura behar dugu eta herri ekimen bateratzaile honen gogoak bizirik iraungo badu, kulturagintzan ari garenok zedarri historiko honen inguruan elkartzuz iraungo duela uste dugu.

- Hori dela eta aurrean: 2023ko apirilaren 26an eguaztena.
- Bonbardaketaren 86. urteurrenean eta egitasmoarekin aurrera egiteko gogoz.
- Iluntzeko 9tan Foru plazan emankizun labur bat egingo dugu.
- Ostean ohiko kandelen ibilbidea.

Sua herioren laguna eta hilen argia.
Suak erre zuen Gernika.
Sugarren ostean ernetzen da hazia.
Argizariak puntaren puntan su-bizia
Gernikako sugarretan kiskalitakoak gomutan,
piztu dezagun bizitzaren zuzia.

ZUZENDARITZA ARTISTIKOA
Doroteo Zobaran

LANKIDEAK
Elai Alai dantza taldea
Kalapitaka Akademia
Ross dantza eskola
Segundo Olaeta Musika Eskola
Txitatoki Urdaibai Zirko Eskola

KORUAK
Arrano Kantariak
Gure Abola Zaharra
Urdaibai kantagune

DISEINUA
Jabier Etayo

BABESLEAK
Gernikako Kultur Etxea




kulturretxea



Gernika
Garretan
Kultur
Alkatea